

ELGARREKIN (letra)

Itzultzen bada
maitia jakin
merezi izan duela

Bizitza oso bat borrokan
untxiaren kontra korrika dortoka
atera puntx-a litroka
emeki goaz higatzen arroka
ta zenbat gau egon garen
zeruari galdetzen
jakin gabe
erantzunik ote den

ta galdetzen hasi aurretik
zergatik jarraitu honekin
gogoratu eraiki duguna
gure maitasunarekin

ta muga horien gainetik
hurrengo dantza zurekin
ospatu dezagun maitia
berriz gaudela elgarrekin

denok batera segi dezagun gure bidea
euskaraz nahi ditugu orain gure azterketak
elkarlanean arituz lortu dugu aldaketa
orain besta egiteko momentua iritsi da
zuk ere egin dezakezu urratsa herria garatzeko
trago bat edan dezakegu denak giroan sartzeko
hizkuntza har dezagun bihotzetik salbatzeko

ta galdetzen hasi aurretik
zergatik jarraitu honekin
gogoratu eraiki duguna
gure maitasunarekin

ta muga horien gainetik
hurrengo dantza zurekin
ospatu dezagun maitia
denaaaaaaaaaaaaaaaa

Azken dantza izango balitz bezala
bat-batean tentetu zait azala
eta pena itzultzen bada
maitia jakin
merezi izan duela

berriz gaudela elgarrekin

ta muga horien gainetik
hurrengo dantza zurekin
ospatu dezagun maitia
berriz gaudela elgarrekin